## Bidebieta

# Ongi etorri Txanpontxoak!

**Joan den ostegunean, hilak 23, Txanpontxo jaiak hasi ziren. Igandera bitartean gazte zein helduentzat hamaika ekitaldi izango dira Bidebietan.**

Hirugarren urtez, Txanpontxo jaiek auzoa alaituko dute. Hiru egunez kirola, musika edota herri barrikotea izango dira.

Kirolari dagokionez, hilaren 25ean, larunbata, areto futbol txapelketaren finalak jokatuko dira kiroldegian. Igandean, berriz, Perurenatarrek herri kirol erakustaldia egingo dute.

Musikazaleek, bestalde, hitzordua dute hilaren 24an, ostirala, Baron Rojo eta Hira taldeek kontzertua emango baitute.

### Dantza lehiaketa

Jai egitarauan berrikuntzak ez dira falta. Hilaren 24an, ostirala, dantza lehiaketaren lehen edizioa egingo da, 22.00etatik aurrera. Bestalde, jaien azken egunean, igandean, artisautza azoka egingo da 10.00etatik aurrera, "Bienve" tabernaren aurrealdean.



### Egitaraua

**Ostirala 24**

**17.30** Trikitilariak eta buruhandiak Haur Txokotik irtengo dira

**18.00** DJ eta kamiseta tailerrak, Allende parkean

**20.00** Futbolin eta billar txapelketak, Marley tabernan

**20.30** Herri barrikotea

**21.30** Mus txapelketa, Guardaplata eta Txiki tabernetan

**22.00** Dantza lehiaketa

**23.30** Hira eta Baron Rojo taldeen kontzertua eta zezensuzkoa

**Larunbata 25**

**11.00** Txan magoaren agerraldia

**12.00** Hamaiketakoa erretiratuentzat, zahar etxean

**12.30** Euskal dantza Herri Ametsa taldearekin

**16.00** Tute txapelketa Guardaplata eta Txiki tabernetan

**16.00** Buruhandiak eta Pasaiako erraldoiak Haur Txokotik irtengo dira

**16.00** Areto futbol txapelketako finalak, kiroldegian

**16.30** Puzgarriak, Allende parkean

**17.00** Dik Dik malabarista, Allende parkean

**18.30** Danborrada institututik aterako da

**20.00** "Mama quiero ser autista" antzezlana, Kontadoresen

**21.00** Oilasko afari herrikoia

**23.30** Dantzaldia Izotz taldearekin eta zezensuzkoa

**Igandea 26**

**07.00** After jaia

**10.00** Krosa

**10.30** Artisautza azoka

**11.00** Toka eta bote txapelketa, Erreka tabernan

**12.30** Hildako auzotarren omenezko meza

**16.00** Buruhandiak eta txistulariak Haur Txokotik irtengo dira

**17.00** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia

**18.30** Herri kirolak: Perurena aita-semeen erakustaldia

**20.00** Sardin jatea eta jaien amaiera

BIKOTE
KAFETEGIA
Zedro plaza 2
Tel.: 943-39 99 52


GIDARI
Auto Eskola
Serapio Mugika, 20
BIDEBIETA
Tel.:+Fax: 943 39 23 65
20016 DONOSTIA